



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Palestinarenak (eta munduarenak) egin du

Munduarenak ere egin du, sinbolo bat delako aspaldi, zeren eta historian lehenago ere egin dira genozidioak eta egingo dira gehiago (zorte txarra, aizu, han jaiotzea egokitu zaizu), baina Palestinarenak ezaugarri bereziak ditu:

- Aspaldikoa da, XIX. mendearen hondar-rean bururatu zitzaion Theodor Herzl-i judutarrek behar zutela estatu bat non euren erlijioa nagusi izango zen, nola kristauek, musulmanek, hinduek edo budistek. Hiru aukera mahai gainean ziztuzten; Palestina aukeratu zuten. (Zorte txarra, aizu...).
- II. Mundu Gerra bukatu zelarik, karanbola perfektua egokitu zen: batetik, proiektu sionista ordurako martxan eta, bestetik, antisemitismoa. Judutarren kontrako genozidioaren ondoren, Europako herrialdeei zegokien judutarrei (eta naziek akabatutako beste herri eta pertsoneri) erreparazioa eta aitortza ematea Europan bertan, baina Israelgo Estatuaren sortzeko proiektua mahai gainean egonda: *win-win*. (Zorte txarra, aizu...).
- Duela 142 urte lehen koloniak ezarri zituztenetik genozidio osoa dokumentatuta dago, filmatuta, gaur egun online emanda...

Eta gauzak horrela, Israeliek palestinar lurretatik palestinar herriaren erabateko desagerpena azken bururaino eramanez

gero, ezin da egon itxaropen onik gainerako herri eta pertsonentzat ere.

Zergatik egin zuten 2023ko urriko erasoaldia palestinarrek, itxura guztien arabera baldin bazekiten Israeliek "gogor" erantzungo zuela? Bada, batetik, Israelgo gizarte zibila izutu eta baldintza horietan bakerik ezin dela egon erakusteko eta, bestetik, nazioarteko komunitateak (guk) erreakzionatu (gen)zezan. Nazioarteko komunitateak erreakzionatu du? Euskal Herriak?

Herrialde gutxi dago non gizartean Palestinaren aldeko elkartasun sentimendua hain sustraituta dagoen. Manifestazioak egi(te)n ditugu, Maccabi datorrenean salatu, banderak leiho eta balkoietan paratu, kufijak lepoan eramanez...

Baina, CAFek Israelgo koloniak lotuko dituen tranbia eraikitzen jarraitzen du, Euskal Herriko arma enpresek Israelgo armada hornitzen dute. "Gure" gobernu eta unibertsitateek ez dute adierazi boikot edo harreman hausturarik Israelgoekin.

Beraz, munduko ipar-mendebaldean Palestinaren alde gehien lerratzen den gizarteetako bat gurea izan eta emaitza hau bada, genozidioa ez da etengo.

Ez dago itxaropenik Palestinarentzat, ez eta Euskal Herriarentzat ere. Gizakien munduarentzat etorkizuna jokatzeko ari gara -han, eta beltz-beltza dago. ●

Elurra



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Elurrak lurra ezkutatzeko du, baita laketu nahian dabilzanen izakiek utzitako arrastoak ere. Elurraren edertasunaren azpian denbora dago, urteak, belaunaldiak, efemerideak, hitzorduak; baina denborak aurrera egiten duenean esan gabeko hitzak agertzen dira lehenago edo geroago. Elurrak oroitarazten digu labain gintezekeela, eta erori. Nonbaiten elurra egiten duen bitartean, norbait idazten ari da, izan kanta edo poema. Izan ere, poemek eta kantek elurraren albo-ondorio berberak dituzte: aztoratzen gaituzte, oztupo dira zenbaitetan, gaixotu gaitzaketek; baina, horretaz gain, edo horren gainetik, gure gorputzaren atalak sentiarazteko

balio digute. Denborari neurria hartzeko balio digute. Elurra ziurgabetasuna da, baina baita ere edertasuna, hotza, urruntasuna, isolamendua. Bere azpian oroitza-penak ezkutatzeko dira hildako mendizale baten gisan. Batzuk azaleratu egingo dira lurmentzearekin batera; beste batzuk, ordea, haren azpian lurperatuta geratuko dira betiko. Behin gorputz izan ziren gorpuak. Elurra, basamortua edo itsasoa bezala, begira dagoenaren ispilu bihurtzen dela esango genuke. Horregatik kanpoko elurra urtu edo izoztu aurretik, bizi izan dugun guztia idatziz utzi nahi izaten dugu, eta oparitu elurra iristen ez den lekuetan daudenei. ●